



EUSKARA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK 2026

GINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA.- Deialdiaren xedea:

Aramaioko Udalak euskara sustatzeko dirulaguntzak emango ditu honako bi kapituluetan banatuta:

- Euskara ikastaroak egiteagatik edota UEUK, Udako Euskal Unibertsitateak, antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeagatik.
- Kanpoko zein barruko hizkuntza paisaia euskaraz sortzeagatik, hala nola, herriko edozein establezimendutan kanpoko errotulua edota barruko hizkuntza paisaia euskaraz soilik jartzeagatik, herriko erakunde edo taldearen webgunea euskaraz bakarrik sortzeagatik eta abar.

BIGARRENA.- Deialdi honen xede diren dirulaguntzetara bideratutako diru kopurua 1.800 eurokoa da eta 03.335.481.008 aurrekontuko kontu sailaren kontura finantzatuko da.

Aipatutako diru kopurua gehitu ahal izango da, udal aurrekontuaren exekuzio oinarriek aurreikusten dutenaren arabera.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntzen izaera:

Dirulaguntza zuzenean emango da, horretarako dagoen araubidearen arabera. Banakako ebaluazio sistema erabiliko da.

LAUGARRENA.- Dirulaguntzen ordainketa:

Alkateak euskara teknikariak eginiko proposamena ontzat hartu eta ebatzi eta gero, dirulaguntzaren ehuneko ehuna ordainduko da.

BOSGARRENA.- Dokumentazio orokorra:

Dirulaguntza hauek lortzeko interesa duenak honako dokumentazio orokorra aurkeztu beharko du:

- Eskatzailearen NAREN fotokopia.
- Kontu korrante zenbakia eta titularraren izena eta abizenak.
- Zinpeko aitorpena adieraziz ez dela 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorraren, IV Tituluan jasotako arau-hauste batengatik zigortua izan.
- Datuak kontsultatu-egiaztatzearen kontrakotasuna (I.eranskina), hala badagokio.

Dirulaguntza hauek jasotzeko eskaera egiteak dakar oinarri hauetan ezarritakoa espresuki zein formalki onartzea.

Ezin izango dituzte dirulaguntza hauek eskuratu dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan aipatzen dituen arau hausteengatik zigorra izan dutenak.

Pertsona eskatzaileei ohartaraziko zaie aurkeztutako agirietan emandako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko dirulaguntzak emateko prozeduran soilik erabiliko direla, indarrean dagoen datu pertsonalen babesari buruzko araudiarekin bat.

Aurkeztutako eskabideek adierazi diren baldintzak betetzen ez badituzte, interesatuei ohartaraziko zaie hutsuneak hamar egunetako epean zuzendu ditzaten, eta honela egiten ez badute, eskaera artxibatu egingo da, ezetza emandakotzat joko delarik.

SEIGARRENA.- Eskaera egiteko modua:



Esp. kodea: 2026EDLK0006

6.1. Eskaerak Aramaioko Udalak aterako duen eredu normalizatuaren arabera (II. eranskina) aurkeztuko dira, behar bezala beteta, kasu bakoitzean zehazten den dokumentazioarekin batera.

6.2. Eskabideak Aramaioko Udalaren bulegoetan aurkeztuko dira, bulego ordutegian (9:00etatik 14:00etara). Horrez gainera, udalaren egoitza elektronikoan ere egin ahalko da eskaera orokor gisa. Horrek ez du eragozten 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena 16.4. artikuluan ezarritakoa bete behar izatea.

ZAZPIGARRENA.- Interpretazio eskumena:

Oinarri hauek nola ulertu behar diren argi ez badago, Aramaioko Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeak ebaztuko du zalantza.

ZORTZIGARRENA.- Organo eskudunak:

8.1. Eskaeren balorazioa eta laguntzen proposamena euskara teknikariak landuko du. Alkateak egindako laguntzen proposamena ontzat hartu eta gero, dirulaguntzaren diktamena egin eta ehuneko ehuna ordainduko da.

8.2. Deialdi honi eta deialdi honetatik sortutako administrazio-egintza guztiei aurka egingo ahal izango zaie, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezarritako egoera eta eratan.

OINARRI ZEHATZAK

1. KAPITULUA. EUSKARA IKASTAROAK

LEHENENGOA.- Onuradunak:

Aramaion erroldatuta egonik, 2025-26 ikasturtean euskaltegi homologatuan euskara ikastaroak (ikastaro arrunta zein barnetegi izaerakoa) egin dituzten edota UEUko ikastaroetan parte hartu duten pertsona fisikoak.

BIGARRENA.- Diruz lagundu ahal direnak:

- 2025-26 ikasturtean euskara ikasteko egin diren ikastaroak.
- 2026an, UEUk, Udako Euskal Unibertsitateak, antolatzen dituen ikastaroak.

HIRUGARRENA.- Eskabideak aurkezteko epea 2026ko azaroaren 6an amaituko da.

LAUGARRENA.- Dirulaguntzen zenbatekoa:

Dirulaguntza emateko udal aurrekontuaren zenbateko hau erabiliko da: 1.000 euro 03.335.481.008 aurrekontuko kontu sailaren kontura.

Aurrekontuaren kontura banatuko dira dirulaguntzak eta honako hau izango da irizpidea:

- A1, A2, B1, B2 eta C1 mailak: matrikularen ehuneko 100eko dirulaguntza.
- C2 maila: matrikularen ehuneko 75eko dirulaguntza.
- UEUko ikastaroak: matrikularen ehuneko 75eko dirulaguntza.

Aurrekontuetan deialdi honetarako zehaztutako kopuru osoa gainditzen badute jasotako eskaerak, proportzionalki banatuko da eskatzaileen artean. Oinarri bezala hartuko dira matrikula agiriak edota bestelako agiriak. Euskara teknikariak, batzordeko zinegotziarekin batera, zehaztuko du banaketa.

Eskaera bakoitzaren balorazioa eginda, proposamena alkateari helaraziko zaio.



BOSGARRENA.- Dokumentazio zehatza:

Dirulaguntza hauek lortzeko interesa duenak honako dokumentazio zehatza aurkeztu beharko du:

- b) Ikastaroen kasuan, egin den ikasketen matrikularen kopia eta ordainagiria.
- c) Asistentziaren ziurtagiria. Ikaslea gutxienez eskolen ehuneko 80ean bertaratu dela ziurtatu beharko du.

2. KAPITULUA. KANPOKO ZEIN BARRUKO HIZKUNTZA PAISAIA EUSKARAZ SORTZEKO

LEHENA.- Onuradunak:

Aramaioko establezimendu, erakunde eta elkarteak, baldin eta kanpoko zein barruko hizkuntza paisaia euskaraz sortzeko xedea betetzen badute.

BIGARRENA.- Diruz lagundu ahal direnak:

- 2026an errotulazioa edota hizkuntza paisaia euskaraz soilik jartzea.
- 2026an webguneak euskaraz soilik sortzea.
- Beste batzuk: euskara lehenetsi eta sustatzen dituzten bestelako euskarriak.

HIRUGARRENA.- Eskabideak aurkezteko epea 2026ko azaroaren 6an amaituko da.

LAUGARRENA.- Dirulaguntzen zenbatekoa:

Dirulaguntza hauek emateko udal aurrekontuaren zenbateko hau erabiliko da: 800 euro 03.335.481.008 aurrekontuko kontu sailaren kontura.

Aurrekontuaren kontura banatuko dira dirulaguntzak eta honako hau izango da irizpidea:

- Errotuluak eta hizkuntza paisaia: egin den gastuaren ehuneko 60ko dirulaguntza emango da errotulu berriak euskaraz bakarrik jartzeko, gehienez ere 300 euro. Errotuluan izen-abizenak bakarrik agertzen badira, ez da emango inolako dirulaguntzarik.

- Webgunea: egin den gastuaren ehuneko 60ko dirulaguntza emango zaie webguneak euskaraz soilik sortzen dituzten establezimendu, erakunde eta elkartei, gehienez ere 300 euro.

- Beste batzuk: aipatutako horiez gain, beste era bateko eskaeraren bat jasotzen bada, aztertu egingo da bidezkoak diren eta aipatutako kontu sailean horretarako aukerarik badagoen. Euskara teknikariak eta zinegotziak erabakiko dute nola jokatu.

Edozein kasutan, aurkeztutako eskaeren arabera kalkulatu dira dirulaguntzak, eta oinarri bezala hartuko dira fakturak edota ordainagiriak. Balorazio hori, euskara teknikariak egingo du batzordearen zinegotziarekin batera.

Eskaera bakoitzaren balorazioa egin ondoren, proposamena alkateari helaraziko zaio.

BOSGARRENA.- Dokumentazio zehatza:

Dirulaguntza hauek lortzeko interesa duenak honako dokumentazio zehatza aurkeztu beharko du:

- d) Diruz lagundutako errotulu edo hizkuntza paisaiaren argazki bat. Webguneetan bera ikusteko argibideak.
- e) Kasu guztietan, eginiko lanaren fakturak edota ordainagiriak ere aurkeztu beharko dira.